


LIBURU PROPOSAMENAK


2021eko AZAROA



BI AHIZPA

0-6 URTE

Poema txikiz osaturiko liburu bat, gorputza behatzeko. Bi ahizpa elkarri begira daude, jolasean eta barrez. Elkarren gorputza aztertzen dute begiez: sudurra, besoak belarriak,...



DOROTEA (XX. ETXEPARE SARIA 2021)

0-6 URTE


Natura eta kultura, tradizioa eta traizioa dotore biltzen ditu Dorotea albumak: hona hemen amama, bakardadean, eguneroko deserosotasunen eta eragozpenen aurrean ausart, konponbide bila. Lehen irakurleei zuzendutako album umoretsu honen protagonista da Dorotea



UR ETA LUR (XXXIX LIZARDI SARIA 2020)

10-12 URTE

Ausardiaz beterik, motxila lepoan hartu eta bere bizitzako ametsa egia bihurtzeko erabakia hartuko du Lur apoak. Bidean, Ur igela ezagutuko du, pertsonaia arraro bezain maitagarria, eta bien artean sortutako adiskidetasunari eta elkarlanari esker lortuko dute beren ametsak betetzea. Eta, zuk? Ba al daukazu ametsik?



GEZURRA

12-16 URTE

Xenia ikasle aparta eta arduratsu bat da baina azkenaldian beheraka doa. Izan ere, maiteminduta dago, baina ez bere inguruko mutil batez, fantasma batez baizik. Internetetik sortutako ahots hori Xenia bezain irakurzalea da. Neska segurua denez eta bere maite-lagun birtualak ez dionez elkar ikusteko aukerarik ematen, bila hasiko da sorpresa bat ematearren.




LAS HERMANAS DE BORGOSUD

GAUR EGUNGO LITERATURA

HELDUAK

AAdriana haizea bezalako da, beti ahizparen bizitzan sartzen da errebelazio baten indarrarekin. Neska menderakaitz eta konplizeak izan ziren. Bi maitasun handi bizi dituzte, sakratuak eta baldar samarrak, batzuetan gaztaroan jaiotako maitaleak bezalakoak. Baina afektuaren hizkuntza ezagutzen ez duenarentzat oso zaila da bihotza irekitzea.



INFINITUA IHI BATEAN

HELDUAK

Liburuen historiari buruzko liburua da hau. Hitzek espazioan eta denboran zehar bidaiatu zezaten asmatu genuen tresna liluragarriaren bizitzan barnako ibilbidea. Haien fabrikazioaren historia, ia hogeita hamar mendean egin diren proba eta diseinu guztiena. Mota askotako liburuak sortu baitira: kez, harriz, buztinez, ihi edo lezkaz, zetaz, larruz, zuhaitzez eginak, eta azkenak, plastikoz eta argiz eginak.

ARAMAIOKO UDALA

